

UXATEGIA **entseguetarako lokalen eguneratzea**

Udalak 5 areto ditu Arritokieta azpian kokatutako Uxategia eraikinean musika taldeen entseguetarako erabiltzeko.

Lokalen erabilpena kudeatzeko Dardara Musika kolektiboarekin hitzarmena du Udalaren kultur sailak, eta lokalen lagapena horretarako erabakitako araudi baten arabera egiten du kolektiboak.

Araudiaren arabera urtero deialdia egin behar da, eta deialdi horri erantzun beharko diote dagoeneko lokaletan dauden taldeek ere. Ezinbestekoa da izena ematea, eta lagapenak urte baterako balio du beti ere.

Lokalak herriko taldeentzat dira, honela, gutxienez taldearen %50-a Zumaian erroldatutako partaideek osatu beharko dute. Kasu guztietan, erabili ahal izateko Dardara kolektiboko kide izan beharko dute taldekideek.

- **Eskaera epea:** 2025-eko Abenduaren **16-tik 29-ra**.

Ondorengo kuota ordaindu beharko du **taldekide bakoitzak**:

- Uxategian 2026 urterako: **50 €**

Ordainagiria eskaera orriarekin batera aurkeztu beharko da epe barruan.

Dardarako kideek **ekintzetan parte hartu behar dute**:

- **Bileretara azaldu:** Bileretara azaldu beharko da. Bileretan zerrenda pasako da.
- **Ekintzetan parte hartu:** Urtean zehar Dardara kolektiboak antolatzen dituen ekintzetan parte hartu beharko da.
- **Zuzendaritzako partaide izan,** eta karguari dagozkion zereginak bete, hala beharko balitz.

Elkarteak erraztuko ditu lokalen erabilerarako giltzak. Eskaera berritzen ez bada, hauen itzultzea nahitaezkoa da, hurrengo urterako eskaera epea amaitu eta 15 egun igaro aurretik. (Giltzak Dardara elkarteari itzuli ahal izango zaizkio, eta baita Alondetia kultur etxean ere.) Giltzak epe barruan itzultzen ez badira, jarraian izango den erabilpen aukeratik at geldituko dira eskatzaileak.

- **Kultur etxean aurkeztu beharrekoa:**
 - Izen-emate orria behar bezala beteta.
 - Taldekideen nortasun agirien fotokopiak (eskaera berrien kasuan).
 - Lokaletan egongo den materialaren inbentarioa (argazkiekin) eta balioa.
 - Dardararen kontu korrontean kuota ordaindu izanaren agiria.

Zalatza edo Informazio gehiagorako:
dardarazmk@gmail.com

Ordainketa kontua (Dardara):

k/k: 2095 5174 95 10 74 75 1768 (Pertsonaren izena eta taldearena adierazi)

IBAN KODEA: ES27

IZEN EMATE ORRIA

Aukeratu eraikina:

UXATEGIA

- Taldearen izena:
- Xehetasunak: noiz sortua, musika mota etab:

.....

.....

.....

.....

- Taldeakideak (izen abizenak, helbidea, jaiotze data):

Izen Abizenak	Helbidea	Jaiotze data	E-mail	Telefono Zenbakia

INBENTARIO ORRIA

	Argazkia	Deskribapena	Balioa
<u>1</u>			
<u>2</u>			
<u>3</u>			
<u>4</u>			
	GUZTIRA		